



Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren behin-behineko ebazpena, 2025/2026 ikasturterako ikasturte osoko plaza bat (urteko modalitatea) lortu duten 59 urteko bitarteko irakasleentzako adinagatik irakastordua murrizteko deialdia ebatzen duena.

Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren 2025eko irailaren 1eko ebazpenaren bidez adinaren arazoarengatik eskola-ordua murrizteko eskatzeko prozedura deitu zen, 2025/2026 ikasturterako.

Aipatutako ebazpenean adierazten denaren arabera, honako baldintza hauek bete behar dira astero bi eskola-orduen murrizketa onartzeko:

- *59 urte (60 urte bete gabe) dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako bitarteko funtzionarioak, betiere ikasturte osoko lanpostua lortu badute (irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte).*
- *Deialdi espezifiko bidez zerbitzu-eginkizunik edo lanaldi-murrizketarik emanda ez izatea 2025/2026 ikasturterako.*
- *Beste jarduera batzuetan (proiektuak, EGA/AKA, jantoki orduak, zuzendaritza-karguak) dedikazioa izateagatik, edota osasunagatik eskola-orduak murriztuta ez izatea, 2025/2026 ikasturtean.*
- *Murrizketa-orduak zuzendaritzaren eskura jarriko dira.*
- *2025/2026 ikasturterako eskola-orduen heren bat murrizketa hori baimentzeko, ikasturte osoan bete behar dira baldintzak. (2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra).*

Ebazpen horren, seigarren atalean adierazten da hurrengo hau: “Eskabideak aztertu ondoren, langileak kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko Ebazpena argitaratuko da”.

Resolución provisional del director de gestión de personal del Departamento de Educación por la que se resuelve la convocatoria de reducción de horas lectivas por razón de edad para el personal interino docente, de 59 años, que haya obtenido una plaza de curso completo, modalidad anual, para el curso 2025/2026

Mediante Resolución de 1 de septiembre de 2025, del director de gestión de personal del Departamento de Educación, se estableció el procedimiento de solicitud de reducción de horas lectivas por razón de edad, para el curso 2025/2026.

Conforme a lo establecido en la misma, los requisitos para la concesión de la reducción de dos horas lectivas semanales son:

- *Personal funcionario interino docente de Educación Infantil y Primaria que tenga 59 años de edad (no cumplidos 60 años), siempre que hayan obtenido una plaza de curso completo (desde el 1 de septiembre hasta el 31 de agosto).*
- *No tener concedida una comisión de servicios por convocatoria específica ni reducción de jornada para el curso 2025/2026.*
- *No tener reducción de horas lectivas por dedicación a otras actividades (proyectos, EGA/AKA, comedor, cargos directivos...), ni por razones de salud, para el curso escolar 2025/2026.*
- *Las horas de reducción se pondrán a disposición de la dirección del centro.*
- *La autorización de esta reducción de un tercio de las horas lectivas para el curso 2025/2026 quedará condicionada al cumplimiento de los requisitos durante todo el curso académico. (De 1 de septiembre 2025 a 31 de agosto de 2026).*

En el apartado sexto de esa resolución se determinaba que: “Una vez analizadas las solicitudes se procederá a la publicación de la Resolución provisional del director de gestión de personal.”.

2025eko urriaren 15era arte aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta;

Una vez analizadas las solicitudes presentadas hasta el 15 de octubre de 2025 y considerando lo dispuesto en el artículo 11 del Decreto 381/2024, de 19 de noviembre por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación;

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- I. Eranskinean adierazten den pertsonari, 2025/2026 ikasturtean, onartzea eskola-orduen murrizketa.

Primero. - Conceder a la persona que figura en el anexo I de la presente resolución, una reducción de horas lectivas para el curso 2025/2026.

Bigarrena.- Administrazioak ofizioz ezeztatu ahal izango du eskola-orduen murrizketa, interesdunetako batek deialdiko baldintzaren bat betetzen ez duela antzematen duenean.

Segundo. - La Administración podrá revocar de oficio la concesión de la reducción de horas lectivas en el momento en el que aprecie que alguna de las personas interesadas no cumple con alguno de los requisitos de la convocatoria.

Hirugarrena.- Irakastorduak murrizteko baimena duten langileei irakaskuntzaz kanpoko eginkizunak esleituko zaizkie, kasu bakoitzean esleitutako lanaldi osoa osatu arte. Honako eginkizun hauek esleituko dira: zeregin osagarrietan laguntzea, proiektu-orduak, jantokiko arduraduna, epaimahaietan parte hartzea eta hizkuntza-eskola ofizialetako azterketa ofizialak zuzentzea, etab. Horrek ez du inola ere ekarriko inolako zereginik egin gabe orduak erabat murriztea.

Tercero. - Al personal al que se le autorice la reducción de horas lectivas, se le asignarán funciones no docentes hasta completar la jornada total asignada en cada caso. Se asignarán funciones tales como: apoyo de tareas auxiliares, horas de proyectos, responsable de comedor, formar parte de los tribunales y corregir exámenes oficiales en las escuelas oficiales de idiomas, etc. En ningún caso supondrá una reducción completa de horas sin realizar ninguna tarea.

Alegazioak

Alegaciones

Epea.- Deialdi hau argitaratu zuen 2025eko irailaren 1eko Ebazpena xedatutakoaren arabera, I. eranskinean argitaratutako behin-behineko zerrendaren aurka interesdunak alegazioak aurkeztu ahal izango ditu 2025eko azaroaren 6ra arte, egun hori barne. Behin-behineko ebazpen honen aurkako erreklamazioak *Hezigunea* ingurunean horretarako prestatutako **aplikazioaren bidez** egingo dira. Erreklamazio horiek egiteko akatsengatik edo akats materialengatik bakarrik egin ahal izango dira, eta **ez** edukizko akatsengatik.

Plazo.- Con arreglo a lo dispuesto en la Resolución de 1 de septiembre de 2025 por la que se convoca la presente convocatoria, contra el listado provisional publicados en el Anexo I el interesado podrá presentar alegaciones hasta el día 6 de noviembre de 2025, incluido. Las reclamaciones contra esta Resolución provisional se realizarán mediante el **formulario habilitado** para ello en el entorno de *Hezigunea*. Dichas reclamaciones solo podrán realizarse frente a errores de hecho o materiales, **no** de fondo.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urriaren 23an
En Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2025

UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL

I ERANSKINA / ANEXO I

NOMBRE Y APELLIDOS	DNI
ARRIZABALAGA LEIÑENA, JON	***9798*